



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 17a

118. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa haustura hidraulikoa erabiltzea debekatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Red Eléctrica Española enpresa premiatzen da justifika dezan Orkoien eta Ezkabarte artean 220 kW-ko linea bat jartzea. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontusail bat gaitu dezan Hezkuntza Departamentuak onetsiriko hitzarmenetatik kanpo geratu diren udal titulartasuneko eskolen funtzionamendurako. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal publikoak eta prezio arrazoizkoak susta ditzan merkataritzako lokalen alokairuari dagokionez. Sustapen Batzordeak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere erabateko desadostasuna adierazten du Estatuko Gobernuaren asmoa dela eta, Espainiako Gazteriaren Kontseilua desagerraraztekoa. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (7. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa haustura hidraulikoa erabiltzea debekatzen duena.**

**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko urruaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa haustura hidraulikoa erabiltzea debekatzen duen Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa haustura hidraulikoa erabiltzea debekatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Gaur egun, gasa erauzteko haustura hidraulikoaren teknikak edo *frackingak* galderak planteatzen ditu, bai osasunaren ikuspuntutik bai ingurumenaren babesaren ikuspuntutik, funtsean, teknika hori erabiliz gero kutsadura eragin litekeelako lurpeko akuiferoetan; izan ere, teknika hori baliatzeko beharrezkoa da produktu toxikoak eta kutsatzaileak injektatzea. Erakunde independente eta zalantzarik gabeko inpartzialtasunekoek duela gutxi eginiko azterlanek agerian jarri dituzte teknika hori baliatzeak sor ditzakeen arriskuak. Horrekin lotuta, 2011ko ekainean, Europako Parlamentuko Ingurumeneko, Osasun Publikoko eta Segurtasuneko Batzordeak txosten bat argitaratu zuen, zeinetan zenbait galdera egiten baitziren haustura hidraulikoaren teknika ikerketarako eta gasa erauzteko teknika gisa erabiltzearen inguruan.

Horregatik guztiagatik, gaur egun gizartean bada kezka gasa erauzteko teknika ez-konbentzional hori abian jartzeak ekar ditzakeen arriskuak direla-eta, eta gizartearen zenbait sektorek uste dute jarduera horrek kalte nabarmenak eragin ditzakeela ingurumenean eta lurpeko akuiferoetan.

Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria da Nafarroako Foru Komunitatearen nortasun-ezaugarrietako bat, bere naturarekin eta paisaia-balioarekin batera. Horren frogagarri, ikusi besterik ez dago zein den Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak etorkizunerako duen apusturik handiena: Nafarroako Ubidea, eta milaka hektarea ureztalur bihurtzea landu ahal izateko.

Lurraldearen okupazio-maila baxua dela-eta, bertako urak garbiak dira eta natura kalterik gabe zainduta dago, eta horri esker nazioko erreferentzia gara landa-turismoan, ekoturismoan edo *birdingaren* moduko arloetan.

Gauzak horrela, Nafarroako Foru Komunitatean haustura hidraulikoaren teknika bidezko gas ez-konbentzionalaren erauzketa etengo da egun dauden zalantzak eta jakinkizunak argitzen ez diren bitartean.

Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateak baliatuko ditu alor hauetan dituen eskumenak: lurraldearen antolamendu, hirigintza eta etxebizitzaren arloan; ingurumenaren eta ekosistemen babesaren arloan; osasunaren eta higienearen arloan; prebentzioaren eta osasuna sustatze eta berreskuratzearen arloan; eta industriaren eta meategi- eta energia-araubidearen arloan.

**1. artikulua.** Hidrokarburu ez-konbentzionalak esploratzeko eta ustiatzeko debekua.

a) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982

Lege Organikoan ezartzen denez, Nafarroak eskumenak ditu ingurumenaren babesean nahiz jarduera ekonomikoaren plangintzan eta garapen ekonomikoaren sustapenean Nafarroaren barnean. Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean debekatu egiten da hidrokarburu ez-konbentzionalak esploratzea eta ustiatzea haustura hidraulikoaren teknika edo *frackinga* erabilia.

b) Honakoak hartuko dira hidrokarburu ez-konbentzionaltzat: harri amaren barruan harrapatuak dauden hidrokarburu likido nahiz gaseosoak, harri horren iragazkortasuna milidarcy 1 baino gutxiagokoa denean, bai eta ikatz- edo harrikatz-zainetan harrapatuta dauden hidrokarburu gaseosoak, baldin eta horiek ateratzeko edo askatzeko beharrezkoa balitz gehigarri kimikoak dituzten ur-kantitate handiak presioz injektatzea.”

**2. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako agintari eta funtzionario publikoek zainduko dute foru lege honetan ezarritakoa errespetatu eta betetzen dela eta, beren eskumenen esparruan, beharrezkoak diren neurriak hartuko

dituzte lege honetan xedaturikoaren aurka egiten diren jarduerak geldiarazteko, bai eta eraldatutako egoera jatorrizkora lehengoratzeko ere.

**3. artikulua.** Foru lege hau indarrean sartzen denetik, 1. artikuluan aipatzen den teknika erabiltzea hirigintzako arau-haustetzat hartuko da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz; teknika horrek, izan ere, Foru Komunitateko lurraldean debekatuta dagoen lurzoru-erabilera bat dakar berekin, foru lege honen 1. artikulua debekatua.

**Xedapen iragankor bakarra.** Foru lege honetan xedaturikoa aplikatzekoa izanen zaie 1. artikuluan debekaturiko jarduera gauzatzeko baimenei edo horretarako gaitzen duen beste edozein tituluri, bai jada emanda daudenei edo izapidetzen ari direnei, bai legea indarrean sartu eta gero aurkezten diren eskaerei ere.

**Azken xedapen bakarra.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar-munean hartuko du indarra.

**Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Legebiltzarrak, 2013ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen ondoko foru lege proposamena bazter uztea: "Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta

banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako".

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legea hein batean aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Legebiltzarrak, 2013ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2013ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu zuen, eta 2013ko ekainaren

17ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2013ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkez-

tu zuen, eta 2013ko ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2013ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2013ko

abuztuaren 8ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Red Eléctrica Española enpresa premiatzen da justifika dezan Orkoien eta Ezkabarte artean 220 kW-ko linea bat jartzea.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko urriaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Red Eléctrica Española enpresa premiatzen da justifika dezan Orkoien eta Ezkabarte artean 220 kW-ko linea bat jartzea.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak “Red Eléctrica Española” enpresa premiatzen du, Orkoien eta

Ezkabarte artean aurreikusitako 220 kW-ko linea bat jartzeko behin betiko erabakia hartu aurretik, behar bezala justifika dezan linea horren beharra.

2. Nafarroako Parlamentuak “Red Eléctrica Española” enpresa eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu, Orkoien eta Ezkabarte artean aurreikusitako 220 kW-ko linea eraikitzea ezinbestekoa joz gero, lur azpitik eraiki dezaten, eta ez airetik, egungo proiektuan aurreikusten den moduan.”

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontusail bat gaitu dezan Hezkuntza Departamentuak onetsiriko hitzarmenetatik kanpo geratu diren udal titulartasuneko eskolen funtzionamendurako.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko urriaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontusail bat gaitu dezan Hezkuntza Departamentuak onetsiriko hitzarmenetatik kanpo geratu diren udal titulartasuneko eskolen funtzionamendurako.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontusail bat gaitu dezan Hezkuntza Departamentuak onetsiriko hitzarmenetatik kanpo geratu diren udal titulartasuneko eskolen funtzionamendurako.”

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal publikoak eta prezio arrazoizkoak susta ditzan merkataritzako lokalen alokairuari dagokionez.**

### *SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2013ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal publikoak eta prezio arrazoizkoak susta ditzan merkataritzako lokalen alokairuari dagokionez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du titulartasun publikoko merkataritza-lokalen alokairuaren arloko bere

egungo politika berrikus dezan, halako moduan non Nasuvinsaren jabetzako merkataritza-lokalak arrazoizko prezioan eskuratu ahal izanen baitituzte negozio bat jarri nahi duten pertsonak.

2. Neurriak aztertzea, beste arlo batzuetan bezala, ekintzaileei errazte aldera merkataritza-lokal pribatuen edo publikoen alokairua, alokairuak ordaintzen direla bermatzen duten abal publikoen sistema bidez, bai eta lokal horiek zainitzen direla eta erabilera-baldintzak betetzen direla ere.”

Iruñean, 2013ko urriaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere erabateko desadostasuna adierazten du Estatuko Gobernuaren asmoa dela eta, Espainiako Gazteriaren Kontseilua desagerraraztekoa.**

### *GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko urriaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere erabateko desadostasuna adierazten du Estatuko Gobernuaren asmoa dela eta, Espainiako Gazteriaren Kontseilua desagerraraztekoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Parlamentuak bere erabateko desadostasuna adierazten du Estatuko Gobernuaren asmoa dela eta, Espainiako Gazteriaren Kontseilua desagerraraztekoa, erakunde horrek 30 urte luzetan lagundu baitu gazteen elkartegin-

tza eta parte-hartzea sustatzen eta gazteak erakunde publikoen aurrean ordezkatzen.

2. Nafarroako Parlamentuak itxaro du Estatuko Gobernuak asmo hori zuzenduko duela eta erakunde mantenduko duela, jatorrizko taxukera juridikoarekin eta barne antolamenduarekin, Espainiako Gazteriaren Kontseilua sortu zenean eman zitzaizkion helburuak bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Nafarroako Foru Komunitateko gazteen parte-hartzeko egitura publikoen mantentzearekin eta kontserbazioarekin, eta Gobernu Kontseilua premiatzen du konpromiso hori mantentzeko dezan Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin”.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

